



Suhiltzaileak, Elasta mendiko sua itzali nahian.

JOSE MANUEL RIVAS

Sutea izan da Irungo mendi batean, ustez norbaitek emanda

Haizearen eraginez, kontrola zaila egin zitzairen suhiltzaileei

Amagoia Mujika / Donostia

Sute handia izan zen atzo Irunen, Elasta mendian. Egurdiko 13:00etan hasi zen ustez norbaitek emandako sua. Arratsaldeko azken orduetan kontrolatu zuten

arren, denbora asko behar izan zuten sua kontrolatzeko. Inguruan zeuden etxeetan suhiltzaileak egon ziren, han bizi direnak ateratzeko arriskua ikusita. Ez zen horretarako beharrik izan. Halere, haize gogorak oztopatu zituen itzaltzeko lanak.

EGUERDIAN, 13:00ak aldera, hasi zen sua Elasta mendian, Landetxe inguruan. 14:00ak aldera mendi horretako alde bat hartu zuen suak, eta beste magalean zeuden etxeak arriskuan zuedela ikusirik, prestaketak egin zituzten suhiltzaileek jendea handik ateratzeko. Ez zen horretarako beharrik izan, eta arratsaldeko azken orduetarako kontrolpean zegoen sua, nahiz eta su lerro luzea zabalik egon etxerik gabeko magalean.

Mendixkan lanean jardun zuten baso guardetako batek adierazi zuenez, «zabalduta den erara eta suak zuten itxura ikusita, ziurra ez bada ere, norbaitek eragin duela dirudi». Berri hau idazterakoan sutea nola piztu zen ez bazekiten ere, eraginda izan zela ustea zegoen zabaldua Irunen lanean ari zirenen artean. Ikertzen ari ziren zergatia ezagutzeko.

Goiz aldera pasiatzera joan ziren bi lagunek sua ikusi zuten eta hots egin SOS Deiakera.

Jende asko lanean

Deia egin eta berehala joan ziren hainbat suhiltzaile. Ondoren, kontrolatzeko zaila zela ikusi zutenean laguntza eskatu eta iritsi ziren gainontzekoak: Ertzaintza, Irungo udaltzainak, basoi guardak, Gipuzkoako Foru Aldundiko operatzaileak eta beste hainbat boluntario hasi ziren lanean sua handia zela ikusita. Sua itzali nahian zebiltzan suhiltzaileez gain, beste hainbat suhiltzaile etxetako aldean jarri ziren prestaketak egiten etxeetaraino heltzeko arriskua ikusita jendea handik ateratzeko beharra egon zitekeela aurreikusitako ondoren.

Sutea zegoela jakin bezain laster Irungo udaltzainekin hitz egin zuen EUSKALDUNON

EGUNKARIAK. Horieta batek esandakoaren arabera kontrolpean zegoen sua, baina handia zela ikusita jende asko egon zen lanean. Sutea nola piztu zen erantzuterakoan, berriz, esan zuenez, «oraindik ez dago argi nola izan den».

Gauerako ez zegoen arriskurik, baina suak pizturik jarraitzen zuen. Bien bitartean, Oiartzun inguruan ere beste sute bat egon zen, baina berehala itzali zuten. Hori ere, norbaitek emana zirudie-la esan zuten han bildutakoek.

Eguraldia kontra

Egun hauetan egiten ari den eguraldi onak ez zuen lagundu sua kontrolatzeko orduan. Hego haizearen eraginez sua piztu bezain laster kiskali zuen ingurua. Ez zen zauritu inor, baina haizeak oztopatu zituen lanak.

Azpeitian gizon bat hil zen atzo goizaldean sute batean

Sendagileen arabera, kea arnasteagatik hil zen

Erredakzioa / Donostia

SUTE larria gertatu zen atzo Azpeitiako Landeta auzoan. Arretxe kaleko 2. zenbakiko etxebizitza batean sute handia piztu zen goizeko 02:00ak aldera. Suteak, etxebizitza hartako bi bizilagunei -senar emazteak zeuden etxean- eragin zien. Gizonari, gainera, heriotza ekarri zion, arnastutako keak eragindako ondoezak bihotza gelditu baitzion. Suhiltzaileek etxetik ateratzea lortu bazuten ere alferrikakoak izan ziren sendagileek haren bizitza salbatzeko egindako ahalegin guztiak, berehala hilotz baitzen.

Emazteak, berriz, sutearen ondorioz zauri arin batzuk baino ez zituen izan. Arnasa hartzeko orduan arazo batzuk zituen eta erredura batzuk ere bai, ondorioz, osasun zentru batera eraman behar izan zuten.

Alemaniarra zen hildakoa

Hildako gizonezkoak -B.V.R izena zuen- 48 urte zituen eta hiritar alemaniarra zen. Hala ere, Azpeitiako udaltzainek aditzera eman zuten zehaz-

bat urte zeramatzan bikote honek Azpeitian bizitzen.

Sutearen berri berehala izan zuten Azpeitiako udaltzainek Landeta auzoan jirabuelta bat egiten ari baitziren une hartan bertan. Ondorioz, beraiek deitu zieten suhiltzaileei berehala han ager zitezen eskatuz.

Bizilagunak kaltetuta

Sutea nahiko handia izan zen eta etxebizitza haren inguruko etxeetan ere eragin zuen. Ondorioz, etxe horietako bizilagun batzuk beste teilatu baten pean igaro behar izan zuten gaua. Batzuk, esaterako, Azpeitiako Loiola Hotelean izan ziren. Hala ere, egunak aurrera egin ahala adituek eraikina bisitatu zuten eta lasai egoteko moduko ondorioak atera zituzten bisitaldi horretatik, ez baitzuten arriskurik nabarmendu gainontzeko etxeetan.

Azpeitiako udaltzainek aditzera eman dutenez, hala ere, erretako etxebizitza egoera penagarrian geratu zen sutearen ondoren, guztiz kiskalita utzi baitzuten.

Atzoko bisitaldian, halaber, adituak sutearen zergatia argitzen saiatu ziren.

Oinezko bat hil da Iruñean, auto batek harrapatuta

San Juan auzoan gertatu zen ezbeharra, atzo

Erredakzioa / Iruñea

JUAN MIGUEL C.L. Barañaingo 41 urteko gizonezkoa auto istripu baten ondorioz hil zen atzo goizean Iruñean. Goizeko 7,15ean San Juan auzoko Urdazubiko Monastegia kaleetik, 30 zenbakiaren parean, oinez zihuan Juan Miguel, eta 34 urteko Rafael F.P. iruin-emeak gidatzen duen Volkswagen Passat autoak harrapatu zuen, oraindik argitu ez diren arazoengatik.

Istripua jaso eta berehala ezbeharraren gunera iritsitako ambulanzia batek jaso zuen ezbeharraren biktima eta zaurituta zegoela Nafarroako ospitalera eraman zuten. Autoaren harrapaketaengatik jasandako zaurien ondorioz, denbora gutxira ospitalera hil zen Juan Miguel C.L. barañaindarra.

Istripua gertatu zen gunera berehala joan ziren Iruñeko udaltzainak eta alkoholemia kontrola egin zion ezbeharrean parte izan zuen autoaren gidariari. Udaltzaingoaren arabera, kontrol horren emaitza negatiboa izan zen. Iruñeko Udaltzaingoa istripuaren nondik norakoak aztertzen ari da orain.

Bestalde, gazte bat zauritu zen Iruñean. Motorrean zihuan eta aurrez aurre jo zuten motorrak eta beste auto batek. Ondorioz zauriturik eraman zuten ospitalera. Zauri arinak ditu.

Beste hiru zauritu ere egon ziren atzo errepideetan. Bizkaian, Arrigorriagan, auto batek eta txirrindulari batek elkar jo zuten. Ondorioz, M.M.S 33 urteko txirrindularia ospitalera eraman zuten. Beste bi istripuak Donostian izan ziren.